

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTUR ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2019 Foru Dekretua, abenduaren 17koa. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundeak aterpeetan eskaintako zerbitzuengatik eta jarduerengatik ordaindu beharreko 2020rako prezio publikoak eguneratzeari

Tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak (ALHAOren 78 zenbakia, 2018ko uztailaren 6koa) 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

67/2010 Foru Dekretuaren bidez, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena, Gazteriaren Foru Erakundeak aterpetxeetan emandako zerbitzu eta jardueren prezio publikoen arautegia onartu zuen. Dekretu horren bigarren eranskinean, aplikatu beharreko prezio publikoak jasotzen dira.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2019ko azaroaren 26an, ondokoak proposatu ditu: eta arau horren II. eranskinean jasotako prezio publikoak aldatzea ere.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Kultura eta Kirolen Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onesten da 67/2010 Foru Dekretuan, zeinak Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan ematen diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoen araudia ezartzen duen, II. eranskinean jasotzen diren prezio publikoen 2020rako eguneratzea, honekin batera doan dokumentuan jasotzen dena.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaria ahaldundu akordio honetan aurreikusita ez dagoena ebazteko.

Hirugarrena. Honako ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera legezko eragina izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

I ERANSKINA / ANEXO I

2020. urtean Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeak erreserbatu eta erabiltzeagatik eta bertako zerbitzuengatik eska daitezkeen prezio publikoak.

1. 2020an hauexek izango dira Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak egiteagatik prezio publikoen tarifak:

Cuánta de los precios públicos exigibles por la prestación de servicios y la reserva y utilización de diversas dependencias de los albergues del Instituto Foral de la Juventud de Álava, durante el año 2020.

1. Para 2020 las tarifas de los precios públicos por la prestación de servicios en los albergues del Instituto Foral de la Juventud serán las siguientes:

2020rako PREZIO PUBLIKOAK			
PRECIOS PÚBLICOS 2020			
ZERBITZUAK SERVICIOS	ITUNDUA CONCERTADA	ARRUNTA NORMAL	
	Gazteak Jóvenes	Gazteak Jóvenes	Helduak Adultos
PENTSIO OSOA PENSIÓN COMPLETA	23,00	29,00	37,00
BAZKARIA / COMIDA	8,00	9,00	10,00
AFARIA / CENA	8,00	9,00	10,00
OSTATUA ETA GOSARIA ALOJAMIENTO Y DESAYUNO	13,00	17,00	22,00
IZARAK ALOKATZEA ALQUILER DE SÁBANAS	3,60	3,60	3,60
Instalazioak erabiltzea, hitzartutako orduetatik kanpo Utilización de instalaciones fuera del horario convenido	Gutxienez 2 euroko faktura pertsonako. Facturación mínima 2 euros por persona		
Zerbitzu bereziak Servicios especiales	Fakturazioa, kostuaren arabera Facturación según coste		